

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

KULTURA ETA KIROL SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 54/2023 Foru Dekretua abenduaren 28koa. Onespena ematea eguneratzeari Gazteriaren Foru Erakundeak aterpeetan eskaintako zerbitzuengatik eta jardue-
rengatik ordaindu beharreko prezio publikoak, Kontseiluaren abenduaren 30eko 67/2010 Foru
Dekretuaren bidez onetsiak**

Arabako foru sektore publikoaren tasa eta prezio publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak 25.1 artikuluan ezarri zuenez, Foru Gobernu Kontseiluaren eskumena da erabil-tzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik eskatu behar zaien prezioa finkatzea eta aldatzea, eta horien artean sartzen dira Gazteriaren Foru Erakundeak eskaintzen dituenak.

67/2010 Foru Dekretuaren bidez, abenduaren 30eko Foru Gobernu Kontseiluarena, Gazte-riaren Foru Erakundeak aterpetxeetan emandako zerbitzu eta jardueren prezio publikoen arau-
tegia onartu zuen. Dekretu horren bigarren eranskinean, aplikatu beharreko prezio publikoak
jasotzen dira.

Horregatik guztiagatik, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2023ko abenduaren 5ean, ondokoak proposatu ditu: eta arau horren II. eranskinean jasotako prezio publi-
koak aldatzea ere.

Horiek horrela, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Zerbitzu Juridikoen Jarduerari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. artikuluan xedatutakoaren harira Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu, eta Kontuhartzaitza Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde zuzeneko txostena eskatu da.

Horregatik guztiagatik, Kultura eta Kiroleko diputatuak eta bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako diputatuak batera proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundearen sarea osatzen duten aterpetxeetako zerbitzuak erabiltzeagatik, organismo erakunde edo partikularrei ezarritako prezio publikoen araudiaren 67/2010 Foru Dekretuaren I. eranskinean jasotako prezio publikoen eguneratzea.

Bigarrena. Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendaria ahaldundu foru dekretu honetan aurre-ikusita ez dagoena ebazteko.

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.
Laugarrena. Araudi berri hau ALHAOn argitaratzeko agindu da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

IÑAKI ARRIZABALAGA ORMAECHEA

Kirol zuzendaria

JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

I. Eranskina

Arabako Gazteriaren Foru Erakundeko aterpetxeak erreserbatu eta erabiltzeagatik eta bertako zerbitzuagatik eska daitezkeen prezio publikoak.

Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan zerbitzuak emateagatik prezio publikoen tarifak honako hauek izango dira:

PREZIO PUBLIKOAK			
ZERBITZUAK	ITUNDUA	ARRUNTA	
	GAZTEAK	GAZTEAK	HELDUA
PENSIO OSOA	25,00	31,00	40,00
BAZKARIA	9,00	9,70	11,50
AFARIA	9,00	9,70	11,00
OSTATUA ETA GOSARIA	14,00	18,50	24,00
IZARAK ALOKATZEA	3,80	3,80	3,80
INSTALAZIOAK ERABILTZEA, HITZARTUTAKO ORDUETATIK KANPO	Gutxienez 2,50 euroko faktura pertsonako		
ZERBITZU BEREZIAK	Fakturazioa, kostuaren arabera		